

## **EIBARKO UDALAK INDARREAN DUEN EUSKARAREN ORDENANTZAREN LABURPENA**

### **EAEKO HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK**

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea oinarriztat hartuta, hauek dira hizkuntzaren alorrean herritarrek dituzten eskubideak eta botere publikoek dituzten betebeharrak:

Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.

Euskal Herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.

b) Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan izateko eskubidea.

c) Aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea.

d) Lanbide-jarduerak, langintza, politikagintza eta sindikatu-jarduera euskaraz egiteko eskubidea.

e) Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.

Botere publikoek eskubide horien erabilera ziurtatuko dute Autonomia Erkidegoaren lurraldean, eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen. Ondorioz, Eibarko Udalari dagokio eskubide horiek betetzen direla bermatzea.

## **UDALAK HERRITARREKIN**

### **Lehen hitza eta harrera**

Euskara izango da lehen hitza telefonoan eta aurrez aurreko harreran .

### **Inprimakiak eta komunikazio idatziak**

Udalak eta haren menpeko edozein erakundek herritarrei bidaltzen dizkieten komunikazio, ziurtagiri, gutun eta jakinarazpen idatzi guztiak hizkuntza ofizial bietan idatzita egongo dira.

### **Bilerak eta jarduera publikoa**

udaleko edozein bileratan euskaraz jarduteko eskubidea aitortzen zaie herritarrei. Hori horrela, herritarrek bileretan euskaraz egiteko eskubidea dutela adieraziko dute udal langileek eta zinegotziek.

Eibarko Udaleko ordezkari politikoek euskaraz eta gaztelaniaz hitz egingo dute ekitaldi publikoetan, Udalaren izenean ari direnean. Ekintza eta entzule motagatik, gaztelaniaren erabilera nagusi den jardueretan eta bileretan euskararen erabilera bermatuko da sarreran, aurkezpenean eta laburpenetan.

Herritar multzo euskaldunarentzako jarduerak euskaraz izango dira.

### **Jakinarazpenak**

Ediktuak, ordenantzak, erregelamenduak eta beste edozein motatako erabakiak ele bietan argitaratuko dira.

### **Abisuak, argitalpenak eta harremanak hedabideekin**

Herritarrentzako iragarkiak, diptikoak eta argitalpenak ele bietan argitaratuko dira.

Herritar multzo euskaldunarentzako argitalpenak euskaraz izango dira.

Prentsa-oharrak ele bietan egingo dira.

Udalaren webgunea ele bietan egongo da.

Aldizkari, gida eta berripaperak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira. Gaiaren eta hartzailearen arabera, beste aukera batzuk aztertuko dira, betiere hizkuntza bien erabileraren arteko oreka mantenduta. Hala dagokionean, beste hizkuntza batzuk erabili ahal izango dira.

## **EUSKARAREN ERABILERA UDALERRIAN**

### **JENDAURREAN KULTURA, KIROL ETA AISIALDI JARDUEREN ANTOLATZEILEEK:**

Eibarko Udalaren diru-laguntza jasotzen duten elkarte eta entitateek, jendaurreko ekitaldiak burutzen dituztenean, herritarrei orohar ematen zaizkien azalpenak, bai ahoz, bai idatziz, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.

Informazio idatzia: iragarki-kartelak, esku-orriak, erabiltzen den guneko oharrak...

Ahozko jarduna: ekitaldiaren aurkezpena, oharrak, instrukzioak...

Herritar multzo euskal hiztunari zuzenduta dagoenean, euskara hutsean egin daiteke Entzule motagatik gaztelaniaren erabilera nagusi den jardueretan euskararen erabilera bermatuko da sarreran, aurkezpenetan eta laburpenetan.

Entitateek Euskara Zerbitzura jo ahalko dute testuak itzultzeko eta zuzentzeko, betiere behar diren baldintzak betez gero.

### **JENDAURREAN ESPAZIO PUBLIKOEN, INSTALAZIOEN ETA MATERIALEN ERABILTZAILEEK:**

Espazio publikoak, udal instalazioak eta materialak erabiltzeko eskaera egiten duten entitateek jendaurreko ekitaldiak burutzen dituztenean, herritarrei orohar ematen zaizkien azalpenak, bai ahoz, bai idatziz, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.

Informazio idatzia: kartelak, esku-orriak, erabiltzen den guneko oharrak...

Ahozko jarduna: ekitaldiaren aurkezpena, oharrak, instrukzioak...

Herritar multzo euskal hiztunari zuzenduta dagoenean, euskara hutsean egin daiteke Entzule motagatik gaztelaniaren erabilera nagusi den jardueretan euskararen erabilera bermatuko da sarreran, aurkezpenetan eta laburpenetan

Udalak pilotalekua, hesiak, oholtzak, futbol-zelaia eta bestelako udal instalazioak eta materialak erabiltzeko baimena ematerakoan, baldintza horien berri emango die interesatuei, eta haiek bete egin beharko dituzte, fidantza itzuliko bazaie.